

# **ANAITASUNA ALDIZKARIAREN DIGITALIZAZIOA**

## **ZENBAIT OHAR TEKNIKO ETA METODOLOGIKO**

### **Katalogazioa**

*420 zenbaki*

*Anaitasuna* aldizkaria 30 urtetan zehar argitaratu zen: 1953-1982. 420 zenbaki plazaratu ziren guztira.

Zenbaki kopuruak merezi du, dena den, azalpen labur bat. Azken zenbakia 419 da, baina guztira 420 zenbaki izan zituen aldizkariak. Izan ere, aldizkariaren historian zehar zenbakitzerakoan izandako zenbait hutsegite daude desoreka horren azpian:

- Batetik, hiru zenbaki ez dira existitzen (104, 108, 119).
- Bestetik, lau zenbaki errepikatuta daude (70, 87, 307, 415).

*6.395 artikulu*

Aldizkariaren edukiak fitxatu eta katalogatzerakoan, artikulua hartu da oinarrizko osagaitzat. Horrela, guztira 6.395 artikulu katalogatu dira.

Katalogaziotik kanpo utzi dira zenbait eduki: iragarkiak, harpidedun eta irakurleentzako ohar "administratiboak", besteak beste. Gainerako elementu guztiak jaso dira fitxategian, komikiak eta denbora-pasak barne.

Aldizkariak bizitza luzea izan zuen eta bere historian zehar hainbat zuzendaritza eta erredakzio talde ezagutu zituen. Ondorioz, aldizkariaren izaera, estiloa eta egituraketa aldatuz joan da. Aldaketa horiek guztiak hartu dira kontuan, katalogazio ahalik eta esanguratsu eta koherenteena osatzeko egitasmoari zuzen erantzun nahian. Horrela, eta salbuespenak salbuespen, zenbaki guztietako edukietarako balio zezaketen irizpideak aplikatu dira, katalogazioan corpus osoari zentzua eta batasuna emate aldera.

### **Fitxen egitura**

Artikulu bakoitzari fitxa bat dagokio fitxategi nagusian. Fitxen egitura beti bera da: egilea, izenburua, saila, zenbakia, data eta orrialdea.

*Egiletzari dagokionez*

6.395 artikuluetatik 4.784 sinatuta daude. Gainerakoak (1.611) sinatu gabe daude. Kasu horietan honelaxe adiera da egiletza: "[Egile ezezaguna]".

Artikulu kolektibo batzuetan ez dira egile guztiak identifikatzen: hau da, artikuluaren atal bat edo batzuk sinatuta datoz, baina beste bat edo batzuk ez. Kasu horietan, identifikatutako egileen ondoren "[eta beste]" eranstean da.

Egilearen izaera instituzionala denean baina erakundearen izena esplizituki agertzen ez den kasuetan ere kortxeteak erabili dira, erakundearen izena eransteko hain zuzen.

Egilearen izenaren ondoko kortxetean, egiletzari buruzko informazioa osatzen da: batetik, ezizenak identifikatzen dira, eta bestetik, izen beraren idazkera ezberdinak bateratzen dira.

### *Izenburuari dagokionez*

6.395 artikuluetatik 5.392k izenburua dute. Gainerako 1.003 artikuluek ez dute izenbururik.

Izenbururik ez duten artikuluen artean, 949 sailen baten barnean daude. Azkenik, gainerako 54 artikuluek ez dute ez izenbururik ez sailik.

Izenbururik gabeko artikuluei honelaxe jarri zaie: "[Izenbururik gabe]".

Forma aldetik bereziak diren hainbat artikulu mota bereizi egin dira fitxategian eta aurkibideetan, izenburuaren ondoren bakoitzari dagokiona erantsiz: "[Bertsoa]", "[Abestia]", "[Olerkia]", "[Komikia]", "[Bineta]".

Izenburuaren ondoren, sailaren aipamena dator, italikaz.

### *Zenbakiari dagokionez*

Eremu honetan ere kortxetea erabili da kasu batzuetan:

- Bi zenbaki errepikatuta: 70 [1] eta 70 [2], 87 [1] eta 87 [2].
- Zenbakia espliziturik ez duten zenbakietan: [145]. zenbakitik [155]. zenbakira.

### *Orrialdeari dagokionez*

Esplizituki orrialde zenbakirik erabiltzen ez den zenbakietan, kortxete artean adierazi da zenbaki hori: 1967 arteko zenbakietan, hain zuzen.

## **Fitxaketaren inguruan zenbait ohar**

Hasieran aipatu dugun bezala, aldizkariaren eduki guztiak artikuluka sailkatu eta fitxatzea lan nekeza izan da, batik bat ez delako batere erraza, *Anaitasuna* bezalako aldizkari batek dituen ezaugarriekin, artikulutzat har litekeen gutxieneko eduki-atala identifikatu eta definitzerakoan, zenbaki guztietako eduki guztiei aplikatzeko moduko irizpide homogeen eta orohartzaileak zehaztea.

Horrenbestez, eduki batzuk, beren izaera berezia dela-eta, salbuespen gisa aztertu eta fitxatu behar izan dira, irizpide orokorretatik at. Hiru eduki mota bereiziko ditugu salbuespen horien artean; izan ere, fitxatzerakoan zenbakiz zenbaki multzokatu dira, mota honetako artikulu kopuruaren ugaritasun potentziala soilduz. Erabaki hori eduki horien izaerak berak eta aldizkarian ematen zaien trataera bereziak justifikatzen du: gutunei, albiste laburrei eta tokiko kronikei buruz ari gara. Multzokatzera joko ez balitz, fitxa kopurua gehiegi haziko litzateke, fitxategiari neurritz kanpoko desoreka eta distortsioa eraginez.

- "*Anaitasunari* gutunak": irakurle, idazle edo harpidedunek aldizkarira bidalitako gutun edo idazkiak biltzen ditu, gaia edozein dela. Urtetan zehar izen ezberdinak hartu ditu gutunen sailak: *Zuek eta gu*, *Anai arteko txokoa*, *Irakurleen eritxiak*, *Irakurleak hizlari*, *Irakurleak idazle*, *Irakurleen eskutitzak*, *Postaz etorriak*... Zenbaki bakoitzeko halako gutun guztiak artikulu bakarrean multzokatu dira, fitxa bakarrean. Bestalde, irizpide bateratzaile gisa, egiletzat "Askoren artean" jarri zaie, baita gutun edo idazki bakarria (eta beraz egile bakarria) dagoen kasuetan ere.
- "Albiste eta kronika laburrak": honako sailtako artikuluak dira: *Or*, *an*, *emen*, *Esamesak*, *Naste borrhaste*, *Euskaldungoa*, *Gure munduko albisteak*, *Neure lantokitik*, *Hementxe denok*, *Tantaka*, *Ohar laburrak*, *Hamabost egun hankaz gora*, *Agiriak*... Atal laburretan zatikatutako edukiak dira. Atal horiek guztiak zenbakiz zenbaki multzokatu dira, fitxa bakarrean.
- "Tokiko informazioa. Herri kronikak": (*H*)erriz (*h*)erri sailean aurkezten diren herri ezberdinei buruzko tokiko kronika laburrak ere zenbakiz zenbaki multzokatu dira, fitxa bakarrean.

## Aurkibideak

Fitxategi horretatik abiatuta, bi aurkibide sortu dira: *aurkibide orokorra* eta *gaikako aurkibidea*.

Aurkibide orokorraren ordena kronologiko hutsa da: zenbakiak errenkan datoz, eta, zenbaki bakoitzaren barnean ere, orrialdearen arabera ordenatzen dira artikuluak.

Gaikako aurkibidean, aldiz, gai sailkapen edo *thesaurus* baten arabera ordenatzen dira artikuluak, eta gai bakoitzaren barruan, berriro ere kronologikoki.

Azken buruan, bi aurkibide horiek dokumentu-analisi prozesu baten emaitzatzat jo genitzake, Bibliotekonomiaren eta Dokumentazioaren ezagutza esparruetan sistema dokumentalen edo dokumentu-bildumen deskribapen, errepresentazio eta azterketari erreferentzia egiten dion prozesu analitiko gisa ulertuta. Dokumentu-analisiak dokumentuen berezitasunak objektiboki deskribatzea, antolatzea eta errepresentatzea ahalbidetzen du, eta jatorrizko dokumentuen formari eta edukiari eragiten dieten eragiketa multzo batek osatzen du. Horrenbestez, dokumentu-analisia bi prozesu motatan banatzen da: batetik, dokumentuaren alderdi formalei buruz diharduten prozesuek dokumentuak identifikatzeko balio digute (*analisi formala*); bestetik, dokumentuaren edukia lantzen duten prozesuak daude (*eduki-analisia*). Xede horiek lortzera bideratuta daude, hain zuzen ere, aurkibide orokorra eta gaikako aurkibidea, hurrenez hurren.

## 420 zenbakiak PDF eta WORD formatuetan

Aldizkariaren 420 zenbakiak PDF eta WORD formatuko dokumentuetan ordenatuta daude, urtez urte eta zenbakiz zenbaki multzokatuta. Horrenbestez, zenbaki bakoitzari PDF eta WORD dokumentu bana dagokie.

PDF dokumentuak, jakina, paperezko bertsioaren argazki leialak dira.

WORD dokumentuek, ezinbestez, lanketa bat daukate. Ahalik eta maketazio- edo taxutze-agindu kopuru txikiena erabiliz, zenbaki eta artikulu guztien aurkezpen homogeen eta koherentea eskaintzeko ahalegina egin da, elementu formal nagusiei beti irizpide berberak esleituz: goiburuak, izenburu eta azpi-izenburuak, sailaren izena... Gainerakoan, aldizkariaren irizpideak errespetatu dira, artikuluen egileen izenak adierazterakoan, esaterako.

Zuzenketak egiterakoan ere bertsio originalaren literaltasuna errespetatu da, euskalki eta bestelako euskara-ereduetako formen erabilerari dagokionez. Aitzitik, akats tipografiko arrunt gisa hartzeko modukoak zuzendu egin dira sistematikoki.

Bestalde, badira aldizkariaren zenbait osagai WORD dokumentuetan agertzen ez direnak:

- Artikuluaren baitako zenbait elementu: argazkiak, irudiak, mapak, grafikoak.
- Komikiak eta denbora-pasak: artikulu gisa fitxatuta daudenez, dagokien lekuan izenburua eta egilea agertzen dira WORD dokumentuetan, baina edukirik gabe.
- Kasu gutxi batzuetan transkripzioa erabat osatu gabe geratu da, erabilitako originala baldintza kaskarretan zegoelako. Lerro bat edo beste falta dela suposa liteke. Hutsune horietan lau galde-ikur ("????") ipini dira, bi zenbakitan zehazki: 363. zenbakian (lau lekutan) eta 364. zenbakian (leku bakarrean).

Azkenik, badira eduki batzuk fitxatu ez direnak baina hala ere WORD dokumentuetan agertzen direnak:

- Zenbait zenbakitan —31, 32, 33, 34, 35 (1956), 36 (1957) eta 69 (1960)—, orrialde azpian hainbat esakune solte agertzen dira. Zenbakiari dagokion WORD dokumentuaren amaieran erantsi dira, "[Esaldi solteak]" izenburuaren azpian.
- Villasante, Mitxelena eta Txillardegiren zenbait aipamen (1974ko 268, 269, 271, 273 eta 275. zenbakietan). Zenbakiari dagokion WORD dokumentuaren amaieran erantsi dira, bata bestearen ondoren, izenbururik gabe.
- "Adiztegia" izeneko aditz zerrendak, testuan bertan agertzen diren euskara batuko aditz formei dagozkien bizkaierazko baliokideekin, orrialdeka multzokatuta (1970eko 195, 196 eta 197. zenbakietan). 198. zenbakitik aurrera, artikuluaren beraren amaieran erantsiko ditu aldizkariak aditz zerrenda horiek.